
OIARTZUNGO HAUR ETA NERABEENTZAKO INGURU IREKIAN AISIALDI ZERBITZUA ESLEITZEKO BALDINTZEN PLEGU TEKNIKOAK

1.- XEDEA

Oinarri hauen xedea, Oiartzungo Udalak, bere gazteria politikaren barruan **inguru irekian, 6-17 urte dituzten haur eta nerabeei zuzendutako aisialdi zerbitzu publikoen** ustiapenaren baldintza teknikoak arautzea da.

Zerbitzu hau bi eskaintza ezberdinez osatua dago: **KALE EKINTZA** eta **GAZTE FOROA**.

2.- ZERBITZUAREN HARTZAILEAK

KALE EKINTZA: 6-12 urte (biak barne) bitarteko haurrentzat zuzendua

GAZTE FOROA: 13-17 urte (biak barne) bitarteko nerabeentzat zuzendua

Zerbitzuen hartzaileek, eskainitako programari eta adierazitako jarraibideen ildotik, zerbitzua behar bezala eta modu eraginkorrean jasotzeko eskubidea izango dute.

Jardueren hartzaileen eskura jarritako ekipamendua eta materiala, honen helburuaren arabera, errespetatu eta erabiltzeko betebeharra izango dute.

3.- ZERBITZUAREN HELBURUAK

KALE EKINTZA

Kale Ekintza, Oiartzungo Udaleko Gazteria Sailaren haurrentzako balio anitzeko zerbitzuaren barruan kokatzen den eskaintza da.

Helburua:

Oiartzungo haurrei larunbatetan eta jai egunetan, inguru irekian, aisi eskaintza hezitzailea eskaintzea. Aisiaren bitartez, bizitzarako gaitasun, jarrera eta balioak eskuratu edo garatzeko helburuarekin.

GAZTE FOROA

Gazte Foroa, Oiartzungo nerabeei zuzendutako aisialdi eskaintza da.

Helburua:

Aisialdiaz, modu aktiboan, partaidetzazkoan, sortzailean eta osasungarrian gozatzea. Autonomia, nor bere burua antolatu eta kudeatzeko gaitasuna lortzea, eguneroko bizitzako ekintza gehienak (astialditik hasita) helduen laguntzen beharrik gabe garatzeko gaitasuna lortzera iritsi arte. Adin bereko pertsonekin lotura egonkorak, atsegingarriak eta erreferentziazkoak sortu eta sendotzea. Gizarteratzeko harremanak garatzea.

4.- ZERBITZUEN KUDEAKETA

Kudeaketa lana, 3. atalean azaltzen diren helburuak betetzera bideratuko du hartzaileak, beti ere Oiartzungo Udaleko Gazteriaren Politikaren baitan.

1) KALE EKINTZA

Zerbitzu honen prestazioak, besteak beste, ondorengo konpromezu eta betebeharrak eskatzen ditu:

- *Oiartzungo Udalaren betebeharrak*
 - Fakturak ezarritako epeen barruan ordaintzea.
 - Lanen zuzendaritza eta kontrola eramatea, Gazteria eta Kirola Sailaren bitartez.
 - Materiala gordetzeko lokala bideratzea eta herriko eremu ezberdinetan lokal edo espazio estaliak bideratzea.
- *Eselependunaren betebeharrak*
 - Jarduerari buruz:
 - *Zerbitzuaren dinamizazioa: jolasak, tailerrak, irteerak...*
 - *Auzo zein herri mailan antolatzen diren ekimen interesgarrietan parte hartzea.*
 - *Antzemandako beharrei erantzuteko egingo diren programak diseinatu eta gauzatzea.*
 - *Erabiltzen diren lokalen txukuntasun eta mantentze lanen jarraipena eta kontrola eramatea.*
 - *Haurrek izena eman dezaten, antolatzen diren ekintza ezberdinetan parte-hartzeko, zabalkunde-kanpainak egitea.*

- *Haurrentzako balio anitzeko zerbitzuko beste jarduerekin koordinatzea eta elkar-lanean aritzea, programazio koordinatu eta osagarria bideratzeko.*
 - **Hiru-hilabetero programa** aurkeztea, Gazteria eta Kirola Batzordean eta honen onarpenaren ondoren, hilabeteko programazioa zehaztu, prestatu eta zabaltzea.
- Ebaluazioari buruz:
- **3 hilabetero** balorazio txosten bat egingo da (gazteria zerbitzuari aurkeztuko zaiona)
 - Ikasturtea amaitzen denetik gehienez ere hilabeteko epean **urteko balorazio-txostena** aurkeztu beharko da, parte hartzaileen, ikasturtearen nondik norakoen, programazioaren, izandako arazoan, etab-en berri emanez.
 - Gutxienez, hiru **ebaluaketa bilera** egingo dira urtean, urteko hiru oporraldien inguruan, udaleko Gazteria arduradunekin, bai tekniko bai politikoekin. Bertan, aurreko hiru-hilabeteari dagozkion txostena aurkeztuko da. Txosten honetan balorazioa egin eta hurrengo hiru-hilabeteko eskaintza programaren proposamena aztertu beharko da. Horrez gain, txosten horietan eranskin bat aurkeztu beharko du esleipendunak, hiru-hilabete horretan zerbitzurako egindako erosketei eta burututako ekintzei dagozkien gastuen balantzea eta fakturak eta ziurtagiriak azalduz.
- Kudeaketa eta Gazteria eta Kirola Batzordearekin koordinazioari buruz:
- Materialaren **inbentario** eguneratua eraman beharko da, ikasturte hasieran dagoena azalduz eta ikasturte bukaeran gelditzen dena. Lehena, ikasturteko programazioarekin batera aurkeztu beharko da eta azkena, urteko balorazio-txostenarekin batera.
 - Ekintza bakoitzeko parte-hartzaileen **erregistro** eguneratua eraman beharko da, Gazteria eta Kirola sailera helarazi beharko zaioa, zehazten den modu eta uneetan.
 - Haurren izen emate kanpainarako zabaltzen den **material** ezberdinak Gazteria eta Kirola sailaren oniritzia izan beharko du.

- *Gazteria eta Kirola Batzordeak, zerbitzuan jarri daitezkeen urteroko **kuotak** finkatu eta onartuko ditu (ekintza bereziak, irteerak...). Esleipenduna kuotak jasotzeaz arduratuko da eta behin ordainketak egin ondoren Udalari helaraziko dizkio.*
- *Ikasturterako **programa** Gazteria eta Kirola Sailari aurkeztuko zaio ikasturtea hasi aurreko hilabetean*
- *Programazio horretan aurreikusita ez dagoen edozein ekintza egin ahal izateko nahitaezkoa izango da Udal baimena (Gazteria eta Kirola saila). Ekintza berria aztertu ahal izateko beharrezkoa den denborarekin aurkeztuko da.*
- *Gazteria eta Kirola Saileko lan taldean parte hartzea. Behar diren koordinazio bilerak eginez*
- *Udal teknikari arduradunari erabiltzaileen eskaera eta iradokizunak adieraztea*
- *Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren kudeaketa eta administrazio betebeharrak egitea*

2) GAZTE FOROA

Zerbitzu honen prestazioak, besteak beste, ondorengo konpromezu eta betebeharrak eskatzen ditu:

- *Oiartzungo Udalaren betebeharrak*
 - Fakturak ezarritako epeen barruan ordaintzea.
 - Lanen zuzendaritza eta kontrola eramatea, Gazteria eta Kirola Sailaren bitartez.
 - Materiala gordetzeko lokala bideratzea eta herriko eremu ezberdinetan lokal edo espazio estaliak bideratzea.
- *Esleipendunaren betebeharrak*
 - Jarduerari buruz:
 - *Zerbitzuaren dinamizazioa: nerabeen ordezkariekin asteroko bilerak, ekintzen koordinazioa, gainbegiraketa.*
 - *Erabiltzen diren lokalen txukuntasun eta mantentze lanen jarraipena eta kontrola.*
 - *Nerabeek antolatzen diren ekintza ezberdinetan parte-hartzeko izena eman dezaten, zabalkunde-kanpainak egitea.*

- Ebaluazioari buruz:
 - **3 hilabetero** balorazio txosten bat egingo da (gazteria zerbitzuari aurkeztuko zaiona)
 - Ikasturtea amaitzen denetik gehienez ere hilabeteko epean **urteko balorazio-txostena** aurkeztu beharko da, parte hartzaileen, ikasturtearen nondik norakoen, programazioaren, izandako arazoan, etab-en berri emanez.
 - Gutxienez, hiru **ebaluaketa bilera** egingo dira urtean, urteko hiru oporraldien inguruan, udaleko Gazteria arduradunekin, bai tekniko bai politikoekin. Bertan, aurreko hiru-hilabeteari dagozkion txostena aurkeztuko da. Horrez gain, txosten horietan eranskin bat aurkeztu beharko du esleipendunak, hiru-hilabete horretan zerbitzurako egindako erosketei eta burututako ekintzei dagozkien gastuen balantzea eta fakturak eta ziurtagiriak azalduz.

- Kudeaketa eta Gazteria eta Kirola Batzordearekin koordinazioari buruz:
 - Ekintza bakoitzeko parte-hartzaileen **erregistro** eguneratua eraman beharko da, Gazteria eta Kirola sailera helarazi beharko zaioa, zehazten den modu eta uneetan.
 - Nerabeen izen emate kanpainarako zabaltzen den **material** ezberdinak Gazteria eta Kirola sailaren oniritzia izan behar du.
 - Gazteria eta Kirola Batzordeak, zerbitzuan jarri daitezkeen urteroko **kuotak** finkatu eta onartuko ditu (ekintza bereziak, irteerak...). Esleipenduna kuotak jasotzeaz arduratuko da eta behin ordainketak egin ondoren Udalari helaraziko dizkio.
 - Gazteria eta Kirola Saileko lan taldean parte hartzea. Behar diren koordinazio bilerak eginez
 - Udal teknikari arduradunari erabiltzaileen eskaera eta iradokizunak adieraztea
 - Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren kudeaketa eta administrazio betebeharrak egitea

5.- ZERBITZUEN INTENTSITATEA

KALE EKINTZA: Ikasturtean zehar, 34 larunbatetan antolatuko dira jarduerak. Aste Santuetan berriz, 7 egunetan eta Gabonetan 10 egunetan. Ekintzaren gutxieneko iraupena 2 ordukoa izan beharko du. Orduategia, 16:30etatik 18:30ra izango bada ere, ekintza, tokia edo beste aldagai baten arabera, orduategia hau aldatu daiteke.

GAZTE FORUA: Urtean zehar 11 jarduera antolatuko dira, bat hilabete bakoitzeko (irailean ezik). Ikasturtean zehar, astean behin, nerabeekin bilerak egingo dira, jarduerak proposatzeko, prestatzeko, ebaluatzeko....(34 bilera inguru). Hauetaz gain, hiru-hilabetero, nerabeek bere kabuz, herrian, beraientzat edota besteentzat, gutxienez ekintza bat antolatuko dute, lantzen ari diren autonomia eta kudeatzeko gaitasuna islatzeko.

Egunak eta kopurua aldatu daiteke, herrian egon daitezkeen beste ekintzekin bat egiteko edota beste ekintza bat ez oztopatzeko. Aldaketa guztiak, Gazteria eta Kirola Sailak aurrez onartu behar ditu.

6.- GIZA BALIABIDEAK

Zerbitzu hauek eskaintzeko, gutxienez, honako giza-baliabideak beharko dira:

KALE-EKINTZA

- **Kordinatzaiale-arduradun bat** giza gaietan, pedagogian, gizarte heziketan, magisteritzan o aisialdian titulatu.
- Gutxienez, **hiru aisialdiko begirale** aisialdian tituluak edo haurtzaroarekin lotura duten ikasketak egindakoak.

GAZTE FOROA

- **Kordinatzaiale-arduradun bat** giza gaietan, pedagogian, gizarte heziketan, magisteritzan o aisialdian titulatu. Asteko bilerak, jarraipen orokorra eta koordinatzaioaz arduratuko dena. Kale ekintzetako koordinatzailea eta honako hau pertsona berbera izan daitezke.
- Proposatzen diren ekintzen arabera, aisialdiko begirale kopuru ezberdinak beharko dira, aisialdian tituluak edo haurtzaroarekin lotura duten ikasketak egindakoak. Ratio bezala, 15 nerabeekiko hezitzaile bat izan beharko da.

7.- INBENTARIOA

Esleipendunak, hasierako inbentarioa egingo du eta hau, kontratua irauten duen bitartean eguneratua eduki beharko du; zainketaz arduratuko da eta Udalari jakinaraziko dio edozein desagertzea eta ondatzea gertatuz gero.

Hasieran dauden ondare guztiak eta esleipendunak erosten dituenak Oiartzungo Udalaren esku geratuko dira kontratua amaitzen denean, beti ere egoera onean eta funtzionatzeko moduan.

8.- BALIABIDE MATERIALAK

Materiala, udalak duen lokalean gordeko da. Jarduerak egiteko, udalak herriko ikastetxeekin eta auzo ezberdinetako baliabideen arduradunekin harremanetan jarriko da baliabide hauek erabili ahal izateko.

9.- EUSKARA

Esleipendunak zerbitzua garatzeko izendatutako langile guztiek ezinbestekoa izango dute EGA titulua edo baliokidea izatea. Bi zerbitzuak euskaraz eskainiko dira. Zerbitzuaren jasolearekiko ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

10.- ZERBITZUAREN KONTROL ETA JARRAIPENA

Gazteria eta Kirola Sailak behar bezalako jarraipen egin ahal izateko zerbitzuaren erabilzaileentzat proposatutako helburuak bete diren neurtzeko langileekin eta behar izanez gero esleipendun enpresarekin bilerak egin ahal izango ditu.

Era berean, Gazteria eta Kirola Sailak ondorengo eskumenak izango ditu:

- Zerbitzuaren kudeaketa zuzendu, gainbegiratu eta kontrolatu: bere kalitatea ebaluatu
- Zerbitzuen funtzionamendua, aldaketak, ordutegiak eta bestelakok arautu.
- Zerbitzuaren esleipendunek proposatutako dinamizazio ekintzetarako programazioa ikertu eta gainbegiratu eta izaera tekniko, inguruabar edo jendearen interesekoa delako balizko aldaketaz proposatu.

Zerbitzu hauekin harreman zuzen duten ekintzak gainbegiratzeko ahalmena izango du Gazteria eta Kirola Saileko arduradunak, esleipendunak bere betebeharrak betetzen dituen ikusteko. Era berean, kontratuaren baldintza teknikoak eta zerbitzuaren gainontzeko inguruabarrak (ordutegiak,...) betetzen diren ere ikustatu ahal izango ditu.

11.- BALDINTZA EKONOMIKOAK

Zerbitzu guzti hauek kudeatzeko gehienezko prezioa urtean **60.000 €**-koa izango da, **BEZa barne**. Esleipendunak hobetu egin ahal izango dute kopuru hau, eta baldintza horri hauekako 12.2. kapituluaren finkatzen diren irizpideen arabera ponderatuko da esleipena.

12.- ADJUDIKAZIORAKO IRIZPIDEAK

Aurkeztutako eskaerak baloratzeko garaian kontutan izango diren irizpideak:

1) Zerbitzu bakoitza kudeatu eta ustiatzeko proiektuak: **Gehienez 65 puntu**

a) Modu honetan. **Gehienez 55 puntu**:

- Kale-ekintza proiektua: **Gehienez 10 puntu**
- Gazte Foroa proiektua: **Gehienez 10 puntu**

2 zerbitzuetan, honako hauek ere kontutan hartuak izango dira:

- Herriko **haur eta gazteen errealitatea** ezagutzea eta **proiektuetan** islatzea. **Gehienez 7 puntu**
- Proiektuen egokiera **helburuetara** eta **inguruaren ezaugarrietara**. **Gehienez 7 puntu**
- **Oiartzungo Udalaren Gazteria politikaren barruan txertatze maila eta Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren txertatze maila** **7 puntu**
- **Zerbitzu hauek aurrera eramateko hobekuntza teknikoak: bereziki, haur eta nerabeen autonomia eta inizatiba sustatzen dutenak**. **Gehienez 6 puntu**
- Orokorrean, bi zerbitzuak kudeatzeko proposamena. **Gehienez 8 puntu**

b) Azterlan ekonomiko xehatua %-tan zehaztuta. Gehienez 10 puntu

Azterlan ekonomikoa aurkeztu behar da baina beti ere %-tan zehaztuta (**ez da inon diru kantitaterik agertu behar ezta proposamen ekonomikoa zein izango den ahalbidetzen duen daturik**). Bertan, zerbitzuak eskaintzeak sortzen dituen gastuak proposamen ekonomiko guztiaren 100%-aren baitan zehaztu beharko da. **Kontzeptu hauek, sailkapen honen arabera zehaztu eta ordenatu beharko dira:**

1. **Bi zerbitzuen kostua (ZK)**, BEZa kanpo. Honen baitan, bi atal hauek jaso beharko dira:

- **Giza baliabideen kostua (GK)**; Zerbitzu bakoitzeko giza baliabideen gastuen %-a adierazi beharko da (oinarrizko ordainsariak, osagarriak, gizarte-segurantzak, etab.).

- **Kostu materialak (KM)**; 2 zerbitzuak bideratzeko, aurreikusten diren material, ekintza etabarren kostua %-tan zehaztua.

2. **Gastu Orokorren eta Etekin Industrialaren (GO eta EI)** portzentai zehatz eta bananduak (%), **ZK**rekiko.

3. Lizitazioa egiteko unean indarrean dagoen **Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ)** portzentaia.

Jarraian azaltzen den eskeman oinarrituta, garatutako azterlan ekonomikoa aurkeztu beharko da.

1. Bi zerbitzuen kostua (ZK)	[GK+KM]
Giza baliabideen kostua (GK)	[KE1+GF1]
Kale Ekintza (KE1)	
Gazte Foroa (GF1)	
Kostu Materiala (KM)	[KE2+GF2]
Kale Ekintza (KE2)	
Gazte Foroa (GF2)	
2. Gastu Orokorrak (GO) [%a ZK-rekiko]	[Zkren %GO]
3. Etekin industrialia (EI) [%a ZK-rekiko]	[Zkren %EI]
AZPITOTALA	[ZK+GO+EI]
Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa)	[(ZK+GO+EI)-ri dagokion BEZa]
GUZTIRA (azterlan ekonomikoa)	%100 [ZK+GO+EI+BEZ]

Azterlan ekonomikoa osatzen duten kapituluak aztertuko dira eta **azterlan ekonomikoaren xehetasuna, argitasuna, proiektuarekiko koherentzia, ulertzeko erraztasuna eta aurkezturiko datuen koherentziagatik baloratuko da. Bereziki ere, langileen kostua baloratuko da.**

Atal honetan aurkeztu beharreko dokumentazioa, **2 azpi-ataletan** banaturik aurkeztu beharko da:

Bi zerbitzuen proiektuak banaturik (**a**) eta bakoitzaren baitan, zehazten diren atalak garatu beharko dira. Gero, **b**) ataleko azterlan ekonomiko xehatua %-tan zehaztuta aurkeztu beharko da (ez da inon diru kantitaterik agertu behar, dena %-kotan zehaztu beharko da).

Ezinbestekoa izango da, eskaerak modu honetan entregatzea.

2) Proposamen ekonomikoa: Gehienez 35 puntu

Atal honetan, aurkezturiko proposamen ekonomikoaren zenbatekoa baloratuko da. Lizitatzailleek aurkezturiko **eskaintzaren proposamen ekonomikoari 35 puntu** emango zaizkio gehienez, zerotik hasita **%2eko** murrizketagatik **2 puntu** izango dituztelarik **%20eko** arte (48.000€).

13.- ORDAINKETA

Urteroko ordainketa modu honetan egingo da: %10a kontratua sinatzen den hilabetean eta gainontzekoa, hilabetero, fakturak aurkeztu eta Udalak onartu ondoren.

Hilabetero, fakturari erantsita, **aurreko hilabetean egindako jarduera eta erositako materialaren fakturen kopiak entregatu beharko dira, hilabeteko txosten bati erantsiz. Baita ere, lanean diharduten giza baliabideen nominen kopia sinatua eta TC-1 eta TC-2 agirien kopiak ere erantsi beharko dira.**

Prezioak urtero igoko dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) igoeraren %85a aplikatuko da.

14.- KONTRATUAREN IRAUNALDIA

Kontratuaren iraunaldia bi urtekoa izango da, kontratu administratiboa sinatu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Hala ere, kontratua luzatu ahal izango da espresuki bi aldeek horrela adostuta, luzapena ezingo da izan bi urtetik gorakoa.